

**AUZO-ESKOLAK ETA IRAKASKUNTZA
MARKINA-XEMEINEN 1920-1972****Moyano Legea (1857)**

1857an, Isabel II.a (1830-1904) Espainiako errege zela, Irakaskuntza Publikoaren Legea (Moyano ministroak bultzatutakoa) onartu zen. Lege haren arabera, 500 biztanletik gorako udalerrietan, eskola publiko bat ireki behar zen mutilentzat, eta beste bat nesKentzat; gainera, 6 urtetatik 9 urtetara arteko ume guztiek derrigorra zuten eskolara joatea. Horrez gain, irakaskuntzan aritzeko ezinbestekoa zen irakasle titulua izatea (horretarako irakasleen eskolak sortu ziren), erlijioaren ardura elizgizonei ematen zitzaielarik.

Lege hark Espainiako Estatuan zegoen analfabetismoa desagerrarazi nahi zuen, eta baita erdarazko irakaskuntza hedatzea eta eskoletan erlijio heziketa ziurtatzea. Hizkuntza, kultura eta erlijio bakarra bultzatuz, eta irakaskuntza Estatuaren eta eleizaren eskuetan utzita, nazio batua eraiki nahi zen.

Badirudi Moyano legeak eragina izan zuela Markinan. Izan ere, udalak 1957. urtean erabaki zuen eskola bat eraikitzea (Mugartegi, 1927:157).

Hezkuntzaren egoera XX. mendearen hasieran

1901ean, Habsburgoko Maria Kristinaren erregeordetzan (1885-1902), Irakaskuntza Publikoaren eta Arte Ederren ministroak, Antonio Garcia Alix-ek (1852-1911), Oinarrizko Hezkuntzarako Ikasketa Plana onartu zuen. Plan horrek ez zituen Moyano legearen oinarriak aldatu¹, baina 6 eta 12 urte bitarteko umeak eskolara joateko derrigortasuna ezarri zuen; hau da, derrigortasuna hiru urtetan igo zuen.

Mende hasieran, bi eskola publiko (Estatuaren mende) zeuden Markinan eta Xemeinen. Xemeingoa, Arretxinagako udal-etxean zegoen. Udaletxe hau 1741. urtean eraiki zen, eta beheko solairua eta lehenengo solairua zituen hasieran. Eskola lehenengo pisuan zegoen XIX. mendearen erdi ingurutik (uste dut Xemeingo eskola ere Moyano legearen ondorioz sortu zela). Dena dela, 1919. urtean, bigarren solairu bat eraiki zitzaion, bertan neskentzako eta mutilentzako ikasgelak jartzeko.

Markinako eskola Artibai kaleko 4. zenbakian zegoen. Esan bezala, eskola hau 1857an udalak hartutako erabakiaren ondorioz eraiki zen (Mugarategi, 1927:157). Bi eskola hauetara joaten ziren 6tik 12 urtera arteko umeak. Klaseak erdaraz izaten ziren, nahiz eta ume guztiak euskaldunak izan. Aberatsen eta jauntxoen seme-alabak kanpora joaten ziren ikastera.

Bi eskola horiez gain, hiriguneetatik urrun bizi ziren umeak baserri zehatzetan batzen ziren, auzoko eskolatu edo abaderen baten ardurapean. Adibidez, Iturreta auzoko umeak Erlatx baserrian biltzen ziren 1918. urtearen bueltan, irakaslea abade bat zelarik (Ibarzabal, 1998:11). Barinaga auzoan ere, 1919. urtearen inguruan, auzotarrek eurek antolatutako eta ordaindutako eskola pribatua zuten eleizaren alboan zegoen *Kontzeju Zaba-*

¹ Era batera edo bestera, Moyano legearen oinarriak ez ziren aldatu 1970. urtera arte; hau da, *Hezkuntza Lege Orokorra* (LGE) onartu zen arte. Lege hori Frankismoaren azken urteetan onartu bazen ere, 80ko hamarkadan jarri zen indarrean. Lege horrekin Espainiako Estatuko ikasle guztiek 14 urtera arte Oinarrizko Hezkuntza Orokorra (OHO) ikasi behar zuten.

mean; irakaslea auzotar bat zelarik (Molina, 2005:53)². Berriatuko hirigunetik urrun dauden Asterrika eta Milloi auzoetako umeez ere inguruko baserrietan ikasten zuten 20. hamarkadaren hasieran. Joxe Gojenola berriatuarrak (1916an jaio) zioen legez: “Eizmendi, Xoxobenta eta Ermintxan ibili ginen erre-zuek-eta ikesten. Kontuk ataten eta leitzen be ikasi gendun. Askorik ez (Mendizabal, 2002:12)”. Ziur asko, era horretako sasi-eskola “pribatu” (gurasoek ordaintzen zioten irakasleari) gehiago ere egongo ziren hirigunetik urrun zeuden auzoetan. Eskola hauetan haurrak euskaraz alfabetatzen ziren, erdara pixka bat ere irakasten zitzairen, eta kristau-ikasbideak eta batuketa eta kenketek bereziko garrantzia zuten.

Edozelan ere, asko ziren pentsatzen zutenak Estatuko eskoletan zein auzoetako pribatuetan ez zela behar bezalako heziketarik ematen, ezta behar bezalako heziketa erlijiosorik ere. Egia esan, maisu-maistrek heziketa maila txikia izaten zuten gehienetan (bereziki baserrietan irakasten aritzen zirenek), kalitatezko irakaskuntza eskaintzeko baliabiderik ere ez zuten. Ondorioz, ikasle gehienak hezkuntza maila txikiarekin ateratzen ziren eskoletatik 11-12 urterekin.

Lehen mundu gerra (1914-1918) eta egoera ekonomikoaren hobeagotzea

Espainiak ez zuen parte hartu Lehen Mundu Gerran (1914-1918), eta Bizkaiko enpresen esportazioak handitu egin ziren. Ondorioz, XIX. mendearen bukaeran, eta XX. mendearen hasieran Markinan eta Xemeinen sortu ziren hainbat fundizioen eta latonerien lan karga ere handitu egin zen, eta industriari eta zerbitzuei loturiko (dendak ere ugaritu egin ziren) lanpostu gehiago sortu ziren.

² Jose Maria Arizmendiarieta, *Mondragoneko kooperatiben sortzailea, eskola borretan hasi zen ikasten 1919an, lau urte zituela* (MOLINA, 2005:52).

Ekonomia hobegotzearekin batera, bizimodua hobegotu zuten bi gertaera garrantzitsu ezagutu zituzten markinarrek eta xemeindarrek XX. mendearen hasierako urteetan: argindarra (lehen argindar enpresa 1896an agertu zen Markinan) eta ura heldu ziren etxeetara (1922. Urtean).

Honek guztiak osasun eta bizi baldintza hobegoak ekarri zituen, eta, emigrazioa gutxituta, hazkunde demografiko garrantzitsua ezagutu zen 20. hamarkadaren bueltan. XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran Markina eta Xemein biztanleak galtzen ari ziren, baina 1927an, 2996 pertsona bizi ziren Markinan eta Xemeinen (Zubikarai eta Fdez. Egiguren, 1991:65), 1910. urtean baino 143 biztanle gehiago.

Bizitzarekiko ikuspuntu ludikoagoa 20. hamarkadan

Testuinguru sozioekonomiko baikor eta berri horretan, Markina eta Xemein modernizatzen hasi ziren. Gizarte irekiago eta alaiagoa agertu zen: 1914. urtean Markinako Udal Musika Banda sortu zen eta igandetako dantzaldiek garrantzi handia hartu zuten herritarren aisialdian. 20. hamarkadaren hasieran, zinea ikusteko aukera agertu zen Markinan, eta antzerkiak ere itzelezko garrantzia hartu zuen. EAJ-ko militanteek, “Acción Católica” elkarteko kideek zein karmeldarrek gidatzen zuten “Pragako Jesus Umearen Artxikofradiako” (1914. Urtean sortua) umeek hainbat antzerki saio antolatzen zituzten.

Mesedetako eskola irekitzen da 1917an

Testuinguru ekonomiko eta sozial baikor horretan, eta presio demografikoak eraginda, beste ikastetxe bat agertu zen Markinan 1917an: Mesedetako mojen eskola. Oinarrizko hezkuntza eskaintzen hasi ziren eta bakarrik emakumeentzako. Eskola honen sorrera azaltzen duten hiru arrazoi aipatu ditzakegu: lehenengoa da burubideak aldatu eta gizartea modernizatzearekin batera, hezkuntzari eta, bereziki, emakumeen hezkuntzari garrantzi gehiago ematen hasi zitzaioela. Bigarrena da elizaren aurkako ja-

rreak ugaritzen ari zirela (ideologia liberala zuten intelektualak, ezkererako joera zuten burgesak eta langileen sindikatu eta alderdietako militanteak gero eta modu ageriagoan agertzen ziren eliza katolikoaren eraginaren aurka), eta elizak era horretako ideien hedatzea gelditu nahi zuela. Eta hirugarren arrazoa da, askoren ustez, estatuaren eskoletan ez zela behar bezalako heziketarik ematen, ezta heziketa erlijioso egokirik ere. Gauzak horrela, eliza katolikoa eskolak katolikoak irekitzen hasi zen³.

Auzo-eskolak sortzeko lehen pausoak 1917an

1917ko martxoaren 11an, Aldundirako hauteskundeak egin ziren Bilbo, Durango, Markina eta Balmasedako barrutietan, eta 1917ko maiatzaren 4ean gehiengo abertzalea zuen historiako lehen Aldundia eratu zen. Gertaera hau ere mentalitateak aldatzen ari zirenaren beste adierazle bat da.

1917tik 1919. urtera euskal abertzaleak Bizkaiko Aldundian izan zuten gehiengoari esker, Ramon de la Sota Aburto Aldundiko Presidenteak bultzatuta, eta Luis Eleizalderen eskutik, Bizkaiko Foru Aldundia auzo eskolak sortzeko pausoak ematen hasi zen. Hain zuzen ere, 1917an hartu zuten lehen erabakia izan zen Instrukzio Publikorako Batzordea sortzea, lehenengo mailako irakaskuntzak zituen arazoak konpontzeko ikerketak egin behar zituena. Egitasmoaren azken helburuak ziren bizkaitarren artean zegoen analfabetismoari aurre egitea (hiru bizkaitarretik bat alfabetatu gabe zegoen, Artetxe, 2020:366), euskararen alde lan egitea eta hezkuntzaren arloan probintzia mailako autonomia lortzea. Euskarazko irakaskuntzaren bidez, herritarren hezkuntza maila hobea izan behar zuten. Izan ere, garaiko eskoletan (publiko zein pribatuetan) zegoen euskararekiko mesprezuak eta gaztelera ikasten ez zuten ikasle euskaldunek jasan behar izaten zituzten zigorrek eskolarekiko gorrotoa sor-

³ 1923an, gizonezkoen kongregazio erlijiosoen %56,59 irakaskuntzan aritzen zen eta emakumezkoen kongregazioen %35,14 (Pauli Davila, Auñamendi Eusko Entziklopedia).

tzen zuten eta umeak eskolatik uxatzen zituen. Luis Elizalde askotan salatu zuen hau bere idazki eta hitzaldietan (Ariznabarreta, Orcasitas, Arrien, Granja eta Amezaga, 1998:103).

1919: auzo-eskolak sortzeko mozioa

1919. urteko maiatzean, Aldundiaren auzo eskoletako ikuskari plaza Eleizalde eskuratu zuen. Eleizalde euskaltzalea eta abertzalea zen, eta argi zeukan euskarazko irakaskuntza bultzatu behar zela (Ariznabarreta, Orcasitas, Arrien, Granja eta Amezaga, 1998).

1919ko azaroaren 26an, Juan Gallano Bengoetxeak, ideologia liberal erradikala zuenak eta Bizkaiko Foru Aldundiko Alduna zenak, Gernika, Markina, Durango eta Balmasedan goi-mailako ikastetxeak sortzeko mozioa aurkeztu zuen Aldundian.

Gallanoren mozioak Bizkaiak zuen arazo larri bat agertu zuen: baserrietan bizi ziren ume asko ez zirela eskolara joaten edo joaten zirenek ahalegin handiak egin behar izaten zituztela, asko eta asko herriguneetatik urrun bizi zirelako. Ume eta gazteen analfabetismoa salatu zuen.

Mozioa ontzat eman zuen Bizkaiko Foru Aldundiak 1919. urteko abenduaren 9an egin zuen bileran.

1920: auzo-eskolak eraikitze proposamena

1920 urtarrilean, auzo-eskolak eraikitze pausoak emateko lan-talde bat osatu zen (Aldundiko Kultura Batzordeko kide zen Eduardo Landeta, Luis de Eleizalde eta Praxedes Aransolo eta Juan Gallano aldunak). Hauek inkesta antzeko bat egin zuten hiriguneetatik urrun (bi kilometro baino gehiago) zeuden Bizkaiko auzoetan eskolara joateko adinean zenbat ume zeuden jakiteko. Mugimendu hark herritarren eta udalen interesa piztu zuen; eta udalak eta auzoetako kofradiak eskolak eraikitze mugitzen hasi ziren.

Bizkaiko Foru Aldundiak auzoetan eskolak eraikitze laguntza eman zuen, bi baldintzarekin: auzunean 10 familia edo

gehiago bizitzea, eta herriko beste eskola batetik gutxienez kilometro bateko tartea egotea (Arrien, 1987).

Aldundiak planoak eta eraikinaren berezitasunak (neurriak, argitasuna, garbitasuna, komunak...) zehazten zituen eta eraikuntzarako materialak ematen. Auzotarrek auzolanean eraikitzen zituzten eskolok, eta lana eta lurra ez ezik, dirua ere jartzzen zuten (Markina-Xemeingo baserri batzuetan oraindik ere badaude Azpiltzako auzo-eskola egiteko 100 pezeta jarri zituztela adierazten duten agiriak).

Antolaketa guztiaren ardura sortu berri zen Instrukzio Publikorako Batzordearen eskuetan gelditu zen. Batzorde honek zehaztu zituen araudiak, irizpide linguistiko eta pedagogikoak, hezkuntza-planak, irakasleen eta eskola-materialaren ordainketak eta ikuskaritza.

Eleizalde auzo eskoletako ikuskari izendatu zuten 1919. urteko maiatzean. Instrukzio Publikorako Batzordeko aholkulari ere egin zuten, bere ardurapean gelditu ziren Batzordeari informazioa eta aholkuak ematea, eskoletako ikuskaritza arduratzea eta maisu-maistrei laguntza eskaintzea.

1920. urteko lehen hilabeteetan beharrian handiena zuten herri eta auzoak zehaztu ziren, eta ikastolak hornitzeko maisu-maistrentzako lehenengo deialdia egin zen. Lehen eskolak 1921eko urtarrilean ireki ziren: Albizekoa (Mendata) eta Belendizkoa (Arratzu).

Bizkaiko auzo-eskolen berezitasun batzuk

Debaldeko irakaskuntza zen. Aldundiak inbertsio ekonomiko handia egin zuen eskolak egiteko, eta, bereziki, irakasleak ordaintzeko.

Instrukzio Publikorako Batzordearen bidez kontrolatzen ziren, baina udal bakoitzak bere Instrukzio Publikorako Batzordea eratu behar zuen (Alkatea, parrokoa, medikua eta hiru guraso –idazten eta irakurtzen zekiten gurasoek lehentasuna iza-

ten zuten–). Herriko batzordearen ardura zen umeak eskolara joango zirela ziurtatzea eta eskolaren garbitasunaz arduratzea.

Irakasleak oposizioen bidez aukeratzen ziren, eta irakasle lanetan aritzeko titulua behar zen. Lehentasuna ematen zitzaion Bizkaitarrei, eta ostean gipuzkoar, arabar eta nafarrei.

Eskolak bi kategoriatan bereizten ziren: ingurune euskaldunekoak eta ingurune erdaldunekoak. Ingurune euskalduneko eskoletan klasea emateko euskara bizkaitarra jakin behar zen, azterketa baten bidez frogatzen zena.

Eskolak hirutan sailkatzen ziren: gela bikoak (neskentzako gela bat eta mutilentzako beste bat), gela bakarrekoak eta bereziak.

Irakasle kargua bateraezina zen beste edozein lanposturekin.

Zigor fisikoak debekatuak zeuden.

Balio arkitektoniko handia duten eskolak eraiki ziren; paisaia oso ondo txertatzen ziren baserri itxurako eraikinak. Gainera, eskolako ume eta irakasleen beharrianetarako oso ondo pentsatuak zeuden: eskolak emateko areto bi edo areto handi bat izaten zuten, eta sukalde-jantokirako beste gela bat, urrun bizi ziren umei jaten emateko. Egur-tokia eta komunak ere izaten zituzten.

Zeramikazko idazkun bat zeukaten guztiek. Idazkun horretan, hau jartzen zuen: “Escuela de barriada de Vizcaya / Bizkaya `ren Auzo-Ikastola”, eta zegokion zenbakia.

Euskarazko irakaskuntza

Bizkaiko beste herrietan bezala, Markinako eta Xemeingo eskola publiko zein pribatuetan erdaraz irakasten zen, nahiz eta ume guztiak euskaldunak izan.

Mende hasierako abertzaleek argi zuten gizartea alfabetatzeko euskarazko irakaskuntza bultzatu behar zela. Ramon de la Sota Aburtok argi erakutsi zuen nahi hori Aldundiko presidentzia hartzean, 1917ko maiatzaren 4ean (Granja, 1993:18).

Esan bezala, Luis Eleizalde Aldundiko auzo eskolen ikuskari, eta Instrukzio Publikorako Batzordeko aholkulari izendatu zuten 1919an. Bere eraginari esker, auzo-eskoletako lehenengo arautegiak zioen lehenengo mailako irakaskuntzan oinarritzko euskara irakurtzen eta idazten irakatsi behar zela, eta goi mailakoan euskal gramatika eta Euskal Herriko historia eta geografia. Horretarako, ingurune euskaldunetako eskoletan (A kategoriakoak), Aldundiak euskaraz jakitea eskatzen zien irakasleei, bizkaieraren ezagutza hobetsiz.

1919. urtean, Liga Monarquicak Aldundiko agintea lortu zuen, eta, apurka-apurka, abertzaleek agintean egon ziren bi urteetan euskarazko irakaskuntzaren alde hartutako erabakiak aldatzen hasi ziren.

Hala ere, Markinan eta inguruko herrietan (Markinako Hauteskunde Barrutia), aldaketa politiko sakonak gertatzen ari ziren 20. hamarkadaren bueltan. Biztanle gehienek ideologia erregezale liberala edo karlista zuten, eta alkate gehienak ideologia hori zuten, baina gero eta gehiago ziren sentimendu abertzalea zutenak, edo, gutxienez, foruak berreskuratu nahi zituztenak⁴. Euskara eta euskal identitatea babestearen aldeko kontzientzia ere indartzen ari zen. Aldaketa horien adierazlea dira 1920. urtearen inguruan, Batzokia zabaldu zela Markinan, eta, estreinakoz, urte horretako jaietako egitarauaren azala euskara hutsean argitaratu zela (alkatea tradizio erregezalekoa zen).

Euskararekiko eta euskal identitatea babestearen aldeko jarrerara indartzen ari ziren testuinguruan, ingurune euskalduneko auzo eskoletan, euskaraz irakasten hasi ziren 1921ean; eta euskarazko eskola-liburuak ere hasi ziren erabiltzen. Barinagako eskola pribatuan, adibidez, 1920an argitaratutako Isaak

⁴ 1903. urtean Ondarroan zabaldu zen Bizkaiko lehenengotariko batzokia, Euskal Lagun-Artea Elkarte. Lekeition bi urte beranduago, 1905ean, eta Markinan 1920. urtearen inguruan. Markinako lehen zinegotzi abertzalea 1911an sartu zen udalean. 1913 eta 1923 urteen artean, Lekeitioko batzokiak 80 bat bazkide izango zituen (Delgado, 2005:188).

Lopez-Mendizabalen *Umearen Laguna* liburua erabiltzen zuten irakurtzen ikasteko (Molina, 2005:55).

Hala ere, 1921.eko urriaren 11n, ikasketa plana aldatu egin zen, eta euskara eta euskal gramatika irakastea debekatu egin zen. Agintean zeuden Liga de Acción Monarquica-koen esanetan, ez zegoen beharizanik euskaraz eta erdaraz eskolak emateko, bizkaitarren herenak baino ez zekialako sasoi hartan euskaraz. Euskarazko irakaskuntzak umeen artean nahastea besterik ez zuen eragiten haien esanetan. Era berean, 1921eko urrian, Instrukzio Publikorako Batzordea euskarazko testuliburuak erabiltzearen aurka agertu zen, abertzaletasuna sustatzen omen zutelako. Ondorioz, 1922an testuok erabiltzea debekatu egin zen (kristau ikasbidea irakasteko liburua zen euskaraz onartzen zen bakarra).

1921eko urritik aurrera, euskara maisu-maistren eta ikasleen arteko ahozko komunikaziorako bakarrik erabili zen eremu euskaldunetan, baita kristau-ikasbidea erakusteko ere (Auzoetako eskolen arautegiko 59. Artikulua). Euskararen aurkako testuinguru hartan, euskarak auzo-eskolan izan behar zuen presentziari buruzko zalantza asko sortzen ziren irakasleen artean. Horrela, 1924an, Berreño (Munitibar) auzoko irakasle batek kristau-ikasbidea irakasteko ze hizkuntza erabili behar zuen galdetzen zion Instrukzio Batzordeari (Artetxe, 2020:380). Karmele Artetxek dioen bezala, 1924. urtetik gauzak are eta okerrago jarri ziren euskarentzat. Izan ere, urte horretatik aurrera, ez zen euskarazko libururik bidali auzo-eskoletara, ezta kristau ikasbidea erakusteko libururik ere (Artetxe, 2020: 379-380).

Auzo Eskolak Markina-Xemeinen eta Lea-Artibai eskualdean

1920 eta 1923 bitartean berrogeita hamar bat auzo-eskola eraiki ziren Bizkaian, eta beste asko amaitzear zeuden. 1929. urterako 100 inguru ziran eregitako auzo-eskolak. 1931tik 1936ra beste 25 eraiki ziren. Guztira, beraz, 1919tik 1936ra, 125 auzo-eskola eraiki ziren. Gutxi gorabehera 5.810 ikaslek

ikasten zuten eskola hauetan, eta 172 irakasle zeuden kontratatuta (Arrien, 1987:629). Irakasle gehienak apopilo egoten ziren inguruko etxe eta baserrietan.

Markinan eta Xemeinen era honetako lau auzo eskola eraiki ziren:

1. Iturreta (Markina): 1921ean eraikia, gela bat (10. Zenbakia).
2. Azpiltza (Xemein): 1921. urtean eraikia, gela bi (13. Zenbakia).
3. Larruskain (Xemein): 1922an eraikia, gela bat (31. Zenbakia).
4. Barinaga (Markina): 1925ean eraikia, gela bi (75. Zenbakia).

Lea-Artibai eskualdean horrelako beste zortzi auzo-eskola eraiki ziren:

1. Iruzubieta (Ziortza-Bolibar): 1921ean eraikia, gela bat (7. Zenbakia).
2. Berreño (Munitibar, Arbatzegi, Gerrikaitz): 1921an eraikia, gela bat (42. Zenbakia).
3. Zeinka-Ziarregi (Ziortza-Bolibar): 1923an eraikia, gela bat (15. Zenbakia).
4. Asterrika (Berriatua): 1925an eraikia, gela bat (63. Zenbakia).
5. Milloi (Berriatua): 1926an eraikia (85. Zenbakia).
6. Gardata (Ispaster): 1927an eraikia (87. Zenbakia).
7. Goierria (Aulestia): 1932an, gela bat (105. Zenbakia).
8. Gorozika (Ondarroa): 1932ean eraikia (105. Zenbakia).

Guztira, Lea-Artibai eskualdean, 1921etik 1932ra, 12 auzo-eskola eraiki ziren.

Primo de Riveraren diktadura (1923-1930)

Primo de Riverak 1923ko irailaren 13an egin zuen estatu kolpea. Diktadura garaian ere, Bizkaiko Foru Aldundia auzo

eskolak egiten jarraitu zuen. 1923-1930 bitarteko diktadura garaian 100 auzo-eskola izatera heldu ziren.

Boterean zeudenek ikasgeletan euskara erabiltzearen aurkako jarrera zutenez, auzo eskola txikietan euskara ez zen irakaskuntzan erabiltzen (1925eko urriaren 16 agindua), baina badirudi ahozko komunikazioan erabiltzea onartzen zela. Gurutzeak eta Espainiako bandera Primo de Riveraren diktadura garaian, hain zuzen ere 1924an, heldu ziren lehenengoz auzo-eskoletara (Artetxe, 2020:388).

II. Errepublika (1931-1936)

II. Errepublika garaian Markinako eta Xemeingo irakaskuntza aldaketa garrantzitsuak gertatu ziren.

Alde batetik, eskola berri bat sortu zela Markinan. Pauleko San Bizenteren Karitateko Alaben ordenak San Roke zaharren eta gaixoen egoitzako ardura hartu zuen, eta mojek ume txiki-txiki eskola bat zabaldu zuten (1968an alde egin zuten Markinatik). Bestetik, aipatzekoa da Markinako eskola publikoarentzako eraikin berri bat egiten hasi zirela, udalak Estatutik 40.000 pezeta lortu ostean. Obrak 1936an bukatu ziren, justu gerra hasi aurretikoan. Azkenik, kontuan hartzekoa da errepublika garaian, berriro ere euskarazko irakaskuntza formala eskaintzen hasi zirela Bizkaiko Aldundiaren menpeko auzo eskola batzuetan. Besteak beste, badakigu Azpiltzako auzo eskolara maistra ondarrutar bat bidali zutela, eta baserriz baserri aritu zela proiektu berria azaltzen eta umeak bertara eramateko eskatzen. Iturretako eskolan ere, Errepublika garaian, euskaraz eta erdaraz irakasten zuen maistra mallabitar bat izan zuten. Gerra aurrean, Barinagan ez zen euskarazko irakaskuntzarik eskaintzen.

Gerra Zibil garaia (1936-1937)

Markina gerrako frontetik oso hurbil gelditu zen, eta, Euzkadiko Gobernuak hala aginduta, eskolak itxita egon ziren, eta

kasu askotan gudariek erabili zituzten, zeregin militarretarako. Garaiko umeek ikasturte bat galdu zuten. Markinako Artibaiko eskolak zein Zelai aurrean egin ziren eskola berriak oso kalte-
tuak gelditu ziren herriaren aurkako bonbardaketen ondorioz.

Gerra ostea eta Frankismoa

1937aren bukaeran berriro hasi ziren klaseak Markina eta Xemeingo zortzi eskoletan. 1938ko apirilaren 18an Aldundia-
renak ziren auzo eskola guztiak “eskola nazional” bihurtu zi-
ren, eta horrek hainbat aldaketa ekarri zituen.

Frankismoak bultzatu zuen “Escuela Nueva” deitu zitzaion ideologian oinarrituta, Markina-Xemeingo eskolak ere kontrol sozialerako, kultur-homogeneotasunerako eta errepresiorako tresna bihurtu ziren. Euskara zeharo baztertu zen eta auzo es-
koletan aritu ziren hainbat irakasle euskaldun eta abertzalek errepresioa jasan behar izan zuten.

Patriotismorik sutsuena laudatzeko helburuz, derrigorrezko gorespen-errito nazionalistak finkatu zituzten (Cara al Sol abestea, adibidez), eta Francoren eta Primo de Riveraren erre-
tratuak paretetan zintzilikatzera behartu zuten.

Auzo-eskoletako irakasle gehienak kanpokoak izaten ziren, eta euskaldunak ziren irakasleek ere euskaraz egiten zuten ikasleak zigortzen zituzten. Iturretako auzo-eskolan, adibidez, maistra nafarrak egon ziren gerra ostean, euskaraz ondo zeki-
ten, baina ikasleak erdaraz egitera derrigortzen zituzten. Barinagan ere euskaraz ondo zегien maistra markinarra egon zen, baina honek ere erdaraz egitera behartzen zituen ikasleak.

Gerra aurretik auzoetako eskolek fama oso ona zuten. Au-
zotarrek euren eskolatzat zituzten. Estatuaren eskuetan gelditu zirenetik, errepresiorako tresna bihurtu ziren, eta aurreko iru-
di ona galdu. Kalitatea ere galdu zuten; besteak beste, irakas-
kuntzarako baliabiderik ez zegoelako eta irakasleek maila txi-
kia zutelako.

Larruskaingo eskolan ibili zen Gregorio Larrañaga “Mañu-korta” bertsolaria 1950etik 1957ra. 14 urte zituela utzi zuen eskola. Berriatuko maistra bat zutela dio, erdara gutxi zekiena, baina, hala ere, erdaraz egitera behartzen zituen ikasleak (Amuriza, 2014:17).

Auzo-eskoletan euskararen aurkako jarrera nabaria zen gerra ostean. Dena dela, gauza bitxiak ere gertatzen ziren. Hain zuzen ere, kontatzekoa da, 1955etik 1958ra, Julene Azpeitia irakasle, idazle eta euskaltzalea Azpiltzako auzo-eskolako nesken irakaslea izan zela (Arrien eta Granja, 1990:2).

Julene 19 urterekin hasi zen irakasle lanetan, eta Gerra Zibilarekin bere jarduna eten behar izan zuen hamaika urtez. Berriro lanean hasita, Gorlizen aritu zen irakasle, 1949an zigortu zuten arte. Burgosen lanean aritu ostean, Markinara etorri zen 1955eko martxoan, eta 1958an erretiroa hartu zuen arte, bertan aritu zen irakasle (Arrien, 1988:82). Urberuagan “Vista Alegre” izeneko etxean bizi izan zen (aurretik ostatu izandako etxea.) Azpiltzako auzo-eskolan irakasle gehienak etxe horretan bizitzeko ohitura zuten. Etxe horretako etxe-koandrea eskolako sukaldaria ere bazen.

Azpiltzako eskolan izan zituen ikasleek diotenez, euskarazko abestiak erakusten zizkieten (uso zuria, adibidez). Klaseak erdaraz ziren, baina komunera joateko baimena euskaraz eskatzen zuten. Atsedendian ere euskaraz egiten uzten zien. Ondorioz, mutilen Maisuarekin, Luis Rodriguezekin, oso gaizki konpontzen omen zen.

Auzo-eskolen amaiera

1972-73 ikasturtea izan zen azkena Markina-Xemein auzo eskoletan. Hurrengo ikasturtean, ume guztiak, baita irakasleak ere, Markinara ekarri zituzten, orain udal liburutegia dagoen eraikinerara. Bi ikasturte (73-74 eta 74-75) bertan egin ostean, 1975ean Bekobenta eskolako eraikin berrira pasatu ziren.

Zergatik itxi ziren auzo-eskolok? Batetik, auzoetan eskolara joateko adina zuten gero eta ume gutxiago zegoen. Eta bestetik, herrietako eskoletara helarazteko hainbat garraio aukera sortu zirelako auzoetako haur eta gaztetxoentzat. Hala ere, arrazoi garrantzitsuena izan zen Villar Palasí hezkuntza ministroak auzo eta nekazal inguruko eskolak itxi eta kontzentraziozko eskolen alde egin zuela, ustez, irakaskuntza modernoagoa eskaintzeko helburuarekin.

Ondorioa

Zer eman zuten Bizkaiko Foru Aldundiak 1920tik aurrera sortu zituen eskola haiek?

Herri-erakundeek gizartearen hezkuntza maila eta bizimodu hobetzearen alde XX. mendean Euskal Herrian egin den lan garrantzitsuetako bat izan zen. Ez da erraza Estatu espainiarrean antzeko adibideak aurkitzea (Gipuzkoan baino ez ziren antzeko zerbait egiten saiatu II. Errepublika garaian).

Helburua zan ume guztiak joan ahal izatea eskolara, nahiz eta urrutiko baserrietan bizi. Gerra aurreko urteetan arazoa ez zuten guztiz konpondu, baina hezkuntza nekazaritza inguruetara helarazi zuten.

Euskara hezkuntza sisteman sartzeko ahalegina ere azpimarratu behar da. Leku euskaldunean, hasieran, klaseak euskaraz ziren, eta erabiltzen ziren esku-liburuak ere euskarazkoak ziren. Dena dela, 1921-1922etik II. errepublikara arte euskara baztertua egon zen irakaskuntzarako tresna giza (ez komunikaziorako edo kristau-ikasbidea erakusteko).

Gerra ostean, beste eskola guztiak bezala, frankismoa goratzeko, errepresiorako eta kontrol sozialerako tresna bihurtu ziren. Euskararen aurkako errepresio basatia bizi izan zuten auzo-eskoletako umeek.

Lotura eta hartu-eman bereziak sortu ziren garai desberdinetan auzo-eskola hauetan ibili ziren haurren artean; eta baita

gurasoen artean ere. Eskolak auzolanean eraiki zirenez, auzotarren artean harremanak sendotzeko balio izan zuten. Gizarte kohesio sortzaile izan ziren. Eta gaur egun ere horrela dira. Izan ere, Markina-Xemeingo lau auzo-eskoletatik hiru auzotarrak biltzeko guneak dira.

Erabilitako liburuak

- Amuriza, Xabier (2014): *Mañukorta. Bertsonajea*. Lanku, Andoain.
- Ariznabarreta, Idoia; Orcasitas, Patxi; Arrien, Gregorio; Granja, Jose Javier eta Amezaga Elias (1998): *Koldo Eleizalde. El Hombre el Vascologo*. Eusko Ikaskuntza. Lankidetzan Bilduma, 8. zenbakia.
- Arrien, Gregorio (1986): “Educación y escuelas de barriada de Vizcaya, 1937-1939 (su traspaso al estado y deterioro de la enseñanza)”. Eusko Ikaskuntzen nazioarteko aldizkaria (RIEV), 31 liburua, 3. Zenbakia, 629-640 orrialdeak.
- Arrien, Gregorio (1987): *Educación y escuelas de barriada de Bizkaia*. Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
- Arrien, Gregorio (1988): “Bere irakaskuntza praktika Bizkaiko auzo eskoletan” in *Julene Azpeitia. Ehun urte mugan (1888-1988)*. Zumaiaiko Udala.
- Arrien, Gregorio eta Granja, Jose Javier (1990): “Reseña bibliografica de Julene Azpeitia. Ehun Urte Mugan (1888-1988). *Revista Internacional de Estudios Vascos*. Eusko Ikaskuntza: Donostia.
- Artetxe, Karmele (2020): “Las escuelas de barriada de Bizkaia (1920-1937). Revisión y nuevos datos” in *Historia y Memoria de la Educación*, 12. Zenbakia, 363-394.
- Davila, Paulí: “Congregaciones religiosas y educación en Euskal Herria”. Auñamendi Eusko Entziklopedia. <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/eu/congregaciones-religiosas-y-educacion-en-euskal-herria/ar-153919-142528/>

- Delgado, Ander (2009): “La transformación de la vida política en la Bizkaia rural durante la Restauración, 1890-1923” in Molina, Fernando (koordinatzailea): *Extranjeros en el pasado. Nuevos historiadores de la España contemporánea*, UPV/EHU, 181-212.
- Granja Pascual, Jose Javier (1993): *Koldo Eleizalde*, Bidegileak bilduma, Eusko Jaurlaritz, 1993.
- Ibarzabal, J. “Buztarri” (1998): *Nire aztarrenak*. Bertsozale Elkarte.
- Juaristi, P. (2011): *Markinako Frontea. Markinako eta Xemeingo Egoera Politikoa eta Soziala Bigarren Errepublikan eta Gerra Zibilean*. UPV/EHUren Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- Lopez-Mendizabal, Isaak (1920): *Umearen Laguna*. Lopezarren Etxea, Tolosa.
- Mendizabal, I. (2002): “Jose Gojenola. Lekoia Goiko Base-rriko Gizon Argia”. *Urepel*, 1. zenbakia, 11-13 orrialdeak, Berriatua.
- Mintegi, Laura (1987): *Julene Azpeitia*. Bidegileak bilduma, Gasteiz, Eusko Jaurlaritz.
- Molina, F. (2005): *Jose Maria Arizmendiarieta. 1915 - 1976*. Euskadiko Aurrezki Kutxa, Arrasate.
- Mugartegi, Juan Jose (1927): *La villa de Marquina*. Echeguren eta Zulaica, Bilbao.
- Urkiza, Julen (1992): *Karmeldarrak Markinan (1691 - 1991). Historia eta agiriak*. Karmel Sorta 5, Zornotza.

Patxi Juaristi